

# 15. gaia: Euskara Arkaikoa

Bigarren Hizkuntza II: Euskara

2018/2019

Ricardo Gómez

# Sakontzeko bibliografia

Gómez, Ricardo & Blanca Urgell, 2010, [“Descripción y defensa de la lengua vasca durante los siglos XVI y XVII”](#), in A. M. González Carrillo (arg.), *Post tenebras spero lucem: Los estudios gramaticales en la España medieval y renacentista*, Granada: Universidad de Granada, 257-320.

Lakarra, Joseba A., 1996, [Refranes y Sentencias \(1596\)](#). [Ikerketa eta edizioa](#), Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia/Euskaltzaindia.

Lakarra, Joseba A. & Céline Mounole, 2018, “Euskara arkaikoa”, in J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 345-468.

# Egitura

1. Sarrera
2. Kokapen historikoa
3. Euskararen egoera
4. Euskara arkaikoaren ezaugarriak

# 1. Mugak zehazten

- **1400-1600**
  - Lakarra (1997): Etxeparerekin hasi (1545)
- 1400 zergatik?:
  - Testu labur batzuk sartzea
  - Errefraua
  - XV. mendeko gertakariak kontatzen dituzten baladak (XVI-XVII. mendeetan jasoak).
- 1600 zergatik?:
  - Morfologia aldaketa handia

# 1. Lehen lekukotasun zabalak

- 1545: [Etxepare](#) (Garazi, BN)
- 1558-1610: Iburguen-Cachopín kronika (Zornotzaldea?, B)
- 1562: Landucci (Gasteiz?, A), *Bocabulariua ezkeraz jakiteko, ezkeraz berba egiteko*
- 1571: [Leizarraga](#) (Beskoitze, L/BN?)
- 1592: Garibairen errefrauak (Arrasate, B)
- 1596: [Refranes y Sentencias](#) (Bilbo?, B)
- 1596: [Betolatza](#) (Betolatza, A)
- c. XVI. m. amaiera: [Joan Perez Lazarraga](#) (Larrea, A)

# 1. Lekukotasun xume asko

- Gutunak
  - [Zalba eta San Martinen gutunak](#) (1416)
  - [Zumarragaren gutuna](#) (1537)
  - [Bertrand Etxauzen gutuna](#) (1584)
  - Azkoitiko serorarena (1596)
  - [Simancasko gutunak](#) (1598)
- Ezkontza fedea
  - Beorburu (1536), [Uterga](#) (1547), [Zufia](#) (1552), [Taxonar](#) (1557), [Tolosa](#) (1557)...
- Bertso eta kantuak
  - [Arrasateko erreketak](#) (1448)
  - [Milia Lasturko](#) (XV)
  - [Perutxo](#) (1536 b.l.)
  - [Amendux](#) (1564)
  - [Henrike III. erregeari](#) (1554)
  - ...
- Otoitzak
  - [Salmo Miserere](#)
- Hiztegi laburrak
  - [Siculo](#) (1530), [Ibarguen-Cachopin kronikakoak](#) (c. 1600)...

# 1. Lekukotasunetan asimetriak

- Mendebaldeko euskara **ondo** lekukotua
  - eremu desberdinak bereizteko moduan (sort. / sart. / Araba)
- Erdialdean (G, GN, L) **oso urri**
  - ezkontza fedeak, esaldiak, otoitzak...
- Ekialderago **ondo**
  - Etxepare, Leizarraga
- Ekialdeko bazterrean (Z, Err.) **oso urri**

## 2. Testuinguru historikoa

- **Politika**

- Estatu modernoa vs. feudalismoa
  - Errege Katolikoak, austriarrak (Karlos V.a, Felipe II.a...)
  - Henrike IV.a eta ondokoak (Luis XIII.a, Luis XIV.a...)
- Nafarroa mendiez bestaldeko merindadera mugatua (1512)

- **Kultura**

- Zientzia positiboak, Filosofia modernoa... vs. Eskolastika
- Inprenta (Gutenberg, c. 1450)

- **Ekonomia**

- Kolonialismoa

- **Erljioa**

- Luteroren Erreforma (Witenberg, 1517)
- Eliza katolikoaren Kontrarreforma (Trento, 1545-1563)



## 2. Hizkuntz egoera (I)

- Kultur hizkuntza vs. herri-hizkuntza (*vulgare*)
  - Herri-hizkuntzen piztea: administrazioa, kultura, literatura...
- Balioespena
  - Hizkuntza klasikoen mailakoa
  - Gramatikaduna
  - Aberats, harmoniatsu, erregular, ugaria... → **apologia**
- Deskribatzea
  - Lehen gramatikak (Nebrixa, 1492)
  - Lehen hiztegiak (Nebrixa, 1495; Robert Estienne, 1539)
- Estandarizatzea: “finkatzea”
- Erabiltzea
  - Bizitzako esparru (garrantzizko) guztietara hedatzea

## 2. Hizkuntz egoera (II)

- Estaturen babesa: “ofizialtasuna”
  - herri-hizkuntza, nazio-hizkuntza > **estatu-hizkuntza**
    - XIII. mendean gaztelania administrazioaren hizkuntza
    - [Villers-Cotterêt-eko ordenantza](#) (1539): herritarren hizkuntza administrazioaren hizkuntza (praktikan, frantsesa)
- Oraindik ez estatu-hizkuntza bakarra
  - “hizkuntza Inperioaren lagun” ([Nebrixa, 1492](#))
  - “Erregueac behar ditu defendatu gendeac, Hitzcuntça batecoac hain vngui nola berçeac” (EZ *Man I, 7*)

# 3. Euskararen egoera

- Egoera aldaketa nabaria
  1. Gorazarrea
  2. Bilketa
  3. Erabiltzea
  4. Goi mailako letrak
  5. Babesa
- Bibliografia:
  - Gómez & Urgell (2010)

# 3.1. Gorazarrea

- “Apologiak” ([erdaraz!](#))
  - gorazarrea + deskribapentxoak
    - Garibai, 1571
    - [Poza, 1587](#)
    - [Etxabe, 1607](#)
- Apologiak? (Lakarra 1985)
  - Berezko balioa (kronika, hizkuntz sailkapena...)
  - Hizkuntzaren defentsa
  - Garibai eta Pozaren hizkuntz ideiak

## 3.2. Bilketa

- Erdi Aroko eresiak eta baladak
  - Garibai (Beotibar, Milia Lasturko...)
  - Iburguen-Cachopín (Arrasateko erreketak...)
  - Juan Martinez Zaldibia, c. 1564 (Juan Lazkano...)
  - Joan Perez Lazarraga, c. 1588 (Urrexola)
- Errefrau bildumak
  - Garibai (1592)
  - *Refranes y Sentencias* (1596)
  - Bertrand Zalgize (XVI. b. - XVII. h.)
  - Lope Martinez Isasti (c. 1625)
  - Jakes Bela (1660-1666)
  - Arnaud Oihenart (1657, 1665)

## 3.3. Erabiltzea

- Dotrina
  - Trento (1545-1563): tokian tokiko dotrinak
    - Santxo Eltsokoa (1561)
    - Betolatza (1596)
    - ...
- Dotrina bakarrik ez
  - [Katon edo silabarioa](#) (Betolatza)
  - [ABC](#) (Leizarraga)
  - Literatur koaderno pribatua (Lazarraga)

## 3.4. Goi mailako letrak


- **Lehenengoz euskaraz**
- **Berariaz (eta “apologia” pixka bat):**
  - *Linguae vasconum primitiae* [=“Euskaldunen hizkuntzaren **lehen fruituak**”]
  - “Zeren baskoak baitira abil, animos eta jentil, eta hetan izan baita, eta baita, zientzia guzietan letratu handirik, miraz nago, jauna, nola **batere ez den asaiatu bere lengoaje propioaren faboretan heuskaraz zerbait obra egitera eta eskributan imeitera [ipintzera], zeren ladin publika mundu guzietara **berze lengoajiak bezala hain eskribatzeko hon dela**” (Etxepare, eskaintzan; Altuna 1980: 5, BU-k egokitua).**
  - “nacusanean hanbatez ene empresa handiago, zenbatez nik eskribatu dudan lengoaje mota baita **esterilenetarik** eta dibersenetarik; eta **oraino, translazionetan behinzat, usatu gabea**. Alabaina, segur izanez ezen Heuskaldunak berze nazione guzien artean **ez garela hain basa**, non gure lengoajez ezin ezagut eta lauda dezagun gure lainko launa...” (Leizarraga, eskaintza, f. \*vi-v; BU-k gaurko grafian jarria).

## 3.5. Babesa

- Etxeparek laguntza pribatua
  - [Bernart Lehet](#) Bordeleko erregearen abokatu nagusia
- Leizarragak babes ofiziala (Joana Albret)
  - 1563 biarnesez
  - 1564 Leizarragari agindu
  - Erlijioarekin erabat lotutako babes
  - Gorteko lekukotasun bakanak
    - Henrike III.a izango zena jaiotakoan egindako [olerkia \(1554\)](#)



# 4. Lekukotasunen kokapena



# 4. Arazo filologikoak

- *RS*
  - Nongo euskara? Noizko euskara?
  - Bertokoak ala itzulpen edo egokitzapenak?
  - Tamaina?
- Lazarraga
  - Egilea ala egileak?
  - Berak eginak ala itzulpen edo egokitzapenak?
- Leizarraga
  - Noren euskara?
  - Nongo euskara?
  - Itzulpenaren eragina


## 4. Arkaismoa

- Aurreko hizkuntza-egoera batetik gorde diren ezaugarriak, hala formaren aldetik nola esanahiaren aldetik.
- Hizkuntza egoera jakin batean arkaismoak salbuespenak izaten dira, aurreko egoera baten aztarnak direlako.
- Bereziki agertzen dira testu mota batzuetan: errefrauak, bertso herrikoiak, baladak, otoitzak, etab.


## 4. Euskara arkaikoa eta arkaismoak

- Hizkuntz ezaugarri bakoitzak bere eboluzio abiadura du
- Arkaismo guztiak ez dira aldi berean desagertu
- Arkaismo batzuk Euskara Zaharrearantz desagertu dira eta beste batzuk geroago
- Arkaismoak ez dira euskalki guztietan une berean desagertu (erdialdea vs bazterrak)

# 4. Adibide bat (1): *-aak* arkaismoa gaur egun (-ak < -aak < \*-a+hak) **amak < amaak < \*ama+hak**




# 4. Adibide bat (2): -aak XVI. mendean



- LAZ:** *bervaac* (AL: 1143r), *donzellaac* (AL: 1143v), *domecaan* (A7: 107)...
- RS:** *errecaac* (214), *marcaac* (451)...

# 4. Adibidea (3): -aak antzina? (Ala -ahak? Ala -ahaga?)



# 4. Arkaismoak eta berrikuntzak hotsetan (I)

- **Hasperena**

- A (eta B?) XIII. m. arte
- GN (eta G?) X.erako ez
- L-kost XVIII. m.tik aurrera galdu
- BN egun ahulduta

- **Bokal sudurkariak**

- XVI. m. B osoan-edo (*RS*, Madariaga, Garibai):
  - XVII.ean Kap: *erraçoâ, doêac, coroêa* baina *erraçoara, doea, coroea* ere
- XVI. m. A-n ez (?), ezta gainerakoetan
- XX. m. Z-n (eta Err-n) oraindik



# 4. Arkaismoak eta berrikuntzak hotsetan (II)

- **Hiato zaharrak**

- deklinabidean eta adizkietan
  - **-aak**: (A,) B, (G?) vs. gainerakoak
  - **-aeta-, -aen....**: A, B, (G?) vs. gainerakoak
  - **-ee-**: Etxepare **-e-** (1545)

- **Txistukarien oposaketa**

- ondo EH guztian
- salb.: kontsonante aurrean eta hitz bukaeran
  - *esta, espada, esne... ones...*
  - hiperzuzenketak: *aztoa... iez...*

# 4. Arkaismoak eta berrikuntzak morfologian (I)

- **Hiru graduko artikulua**
  - *-au, -ori, -a / -ok, -ak*
- **Ablatiboa eta prosekutiboa**
  - banaketa: ‘nondik’ // ‘non zehar’
  - forma: *-(r)ean/-(r)ik // -ti* cf. *ondore(a)n, noizik behin, herririk herri*
  - historia (Lakarra 1996): mend. vs ek.
- **a / e adizkietan**
  - *daroat* ‘nik hura’ (NN)
  - *deroat* ‘hark zerbait’ (NNN)

## 4. Arkaismoak eta berrikuntzak morfologian (II)

- **-de / -e / -te iragankorretan**
  - *dau-de / dau-e / deu-e / du-e / du-te / die < \*du-e*
- **geroaldiko agintera**
  - *egizu / egikezu, zatoz / zatozke...*
- **subjuntibo trinkoa**
  - *nintzan* ‘izan nendin’, *datorren* ‘etor dadin’, *dakargun* ‘ekar dezagun’...
- **[partizipioa + egin] geroaldiko perifrasia**
  - *emon da(g)izu*
- **-zu ‘zuek’**
  - *zuek dozu, zuek zara...*

# 4. Arkaismoak eta berrikuntzak sintaxian (I)

- **aoristoa**

- *etor nendin* ‘etorri nintzen’
- *eman nezan, eman negian* ‘eman nuen’

- **[partizipioa + joan / eroan] perifrasia**

- *egin daroat* ‘egin ohi dut’
- *jazo doeana* ‘jazo ohi dena’

- **egin / \*ezan / \*iron**

- \*ezan (NN) / egin (NNN) : B, G *ekar dezan / ekar de(g)iogun*
- \*ezan (NN) / \*erazan (NNN) : HGN *ekar dezan / ekar d(e)razogun*
- \*ezan + \*iron (NN) / \*ezan (NNN) : BN-gar-aturri (+ L?)

# 4. Arkaismoak eta berrikuntzak sintaxian (II)

- **aditzoina vs. partizipioa**
  - Hegoaldean:
    - *-i*-dunak historiaurrean galdu: *etor nadin, etor hadi, etor naiteke...*
    - *-tu* A, B: XVI-XVII... G: XVII-XVIII...
  - Iparraldean:
    - *hasi, arazi...* Iparraldean hasikinak (Etxep, Leiz...)
    - gero indartu?
- **TO GEN**
  - *traixioe baten asmatzean* (B XVI. m., A, G 1800 arte?)

# 4. Arkaismoak eta berrikuntzak sintaxian (III)

- **Linschmann-Aresti legea**
- ***Xrekin/gaz Y = X eta Y***
  - *Ene veguiacaz vioceen artean* (B, XVI. m.)
  - *Biz gloria aitearekin semearenzat* (G, XVI?)
  - *Yrekin Xren arte-* (G, XIX. m.: Iztueta, Arrue...)